


ZER JAKIN BEHAR DUT OPERATU ONDOKO MINAZ?

- Operazio ondoko mina arintzea funtsezkoa da **kirurgia osteko konplikazioen arriskua gutxitze-ko**, eta azkar sendatzeko.
- **Hobe da minari aurrea hartzea** tratatzea baino.
- **Goiz emandako analgesia askoz eragingarriagoa da**, eta **minaren intentsitatea areagotzea prebe-nitzen du**. Tratamenduan pautaturiko **analgesia ez errefusatzea** aholkatzen dugu.
- Interbentzio kirurgiko baten ondoren hartutako analgesikoek ez dute mendetasunik sortzen, eta ez dago inolako motiborik mina eta sufrimendua aguantatzeko.
- Anestesiologoek, kirurgialariek eta erizaintzako pertsonalak **konpromisoa** dute operazio ondoko mina arintzeko metodarik eraginkorrena aplikatze-ko, minaren intentsitatearen eta kirurgia motaren arabera.
- Interbentzio-motaren arabera, minarentzako medikamentuak edo analgesikoak eman daitezke **hainbat modutan**: pilulak, partxeak, injekzioak, bena barnetik eta kateter epiduralaren bidez.
- Medikamenturik erabilienak parasetamola, meta-mizola eta beste antiinflamatorio batzuk dira. Morfina lasaigarri bikaina da eta ospitalean asko erabiltzen da.
- Arren, eman medikuari eta erizainei duzun edozein **minen berri**.
- Mesedez, jakinarazi analgesiko bat hartutakoan nabaritzen duzun edozein sintoma edo deseroso-tasun.

NOLA NEURTZEN DA MINA?

- Minaren eboluzioa eta haren kontrako tratamen-duaren erantzuna 1etik 10era doan eskala baten bidez neurtzen da. Eskala horretan 10 min jasanezina da.
- Esaten badiguzu eskala horretan non kokatzen zaren, egoki tratatu ahal izango zaitugu.




ZER EGIN BEHAR DUT ALTA EMATEN DIDATENEAN?

- Mina arintzeko medikazioa hartzeko orduan, jarraitu profesional sanitarioek emandako indika-zioak.
- Kontsultatu **Familiako medikuari** ez baduzu lortzen mina modu egoki batez kontrolatzea.
- Beste edozein medikamentu hartu aurretik galdetu Familiako medikuari.

PREVENCIÓN y MANEJO del DOLOR POSTOPERATORIO

Prevenir el dolor
es mejor que tratarlo




QUÉ HAY QUE SABER ACERCA DEL DOLOR POSTOPERATORIO

- El alivio del dolor agudo postoperatorio es fundamental para **disminuir el riesgo de complicaciones postquirúrgicas** y tener una rápida recuperación.
- Es mejor **prevenir el dolor** que tratarlo.
- La **analgesia suministrada de forma precoz es más eficaz y previene la intensificación** del dolor. Desaconsejamos **rechazar** la analgesia que se le ha pautado en su tratamiento.
- Después de una intervención quirúrgica, el uso de analgésicos no provoca dependencia y por tanto no hay motivo para aguantar el dolor y sufrir inútilmente.
- Los anestesiistas, cirujanos y el personal de enfermería están **comprometidos** a aplicar el método más eficaz para aliviar el dolor postoperatorio según su intensidad y tipo de cirugía.
- Los medicamentos para el dolor o analgésicos se pueden administrar de **distintos modos** según el tipo de intervención (pastillas, parches, inyecciones, vía venosa, con un catéter epidural...).
- Los fármacos más usados son paracetamol, metamizol y otros antiinflamatorios. La morfina es un calmante excelente y muy utilizado en el hospital.
- Por favor, **comunique** al médico y al personal de enfermería cualquier dolor que tenga.
- Por favor, comunique cualquier síntoma o incomodidad que note durante o tras la administración de un analgésico.

CÓMO SE MIDE EL DOLOR

- La evolución del dolor y su respuesta al tratamiento se valora por una escala del 1 al 10, en donde el 0 es ningún dolor y el 10 es dolor insoportable.
- Su colaboración, indicándonos dónde se encuentra en la escala, es importante para que le atendamos adecuadamente.



CÓMO DEBO ACTUAR CUANDO ME DEN EL ALTA

- Seguir las indicaciones de los profesionales sanitarios acerca de cómo tomar la medicación para el dolor.
- Consultar con su **médico de familia** si no consigue controlar el dolor adecuadamente.
- Antes de tomar otro medicamento, consultar al médico de familia.

OPERATU ONDOKO MINAREN PREBENTZIO ETA MANEIOA

Minari aurea hartzea hobe,
gero tratatu beharra izatea baino

